

57 JAZZALDIK EGUN BAT GEHIAGO IZANGO DU ETA MULATU ASTATKE GEHITU DU BERE PROGRAMAZIORA

**Donostiako Jazzaldia uztailaren 20tik 25era izango
da**

Simple Mindsen kontzertua uztailaren 20ra aurreratu da

Mulatu Astatke bibrafonista eta perkusionista etiopiarrek Donostiako Jazzaldian lehen aldiz joko du. Ethio-Jazzaren aitak doako kontzertua eskainiko du Zurriola hondartzako KELER GUNEAN, uztailaren 21ean, 20:45ean.

57. Jazzaldia uztailaren 20an hasiko da, Simple Mindsen kontzertuarekin, 21:30ean KELER GUNEAN. Hasiera batean iragarritako agertokian mantenduko den kontzertu hau uztailaren 21etik 20ra aurreratuko da.

www.jazzaldia.eus